

PRENTSA-OHARRA

Teknikerrek material aurreratuen berrikuntzak aurkeztuko ditu European Coatings Show 2025en

- *Tekniker euskal zentro teknologikoak bere eskaintza teknologikoa aurkeztuko du European Coatings Show foro europarrean (Alemania), materialen erresistentzia, iraunkortasun eta eraginkortasun handiagoa bultzatzeko*
- *Martxoaren 25etik 27ra, hainbat propietate antimikrobiano, korrosioaren kontrakoak edo autokonpongarrak dituzten erakusle sorta aurkeztuko du 3A - 534 standean, besteak beste, hainbat sektoretan aplikatzeko*

[[Eibar, 2025eko martxoaren 18an](#)] – Material berrien garapena funtsezko zutabea da hainbat sektore industrialen bilakaerarako, hala nola automobilgintza, aeronautika, kontsumo-elektronika, azpiegiturak eta osasuna. Ikerketa eta berrikuntza funtsezkoak dira gehigarriak, estaldurak, erretxinak, pinturak eta tintak hobetzeko, prozesuak optimizatzeko, eraginkortasuna handitzeko eta industriaren ingurumen-inpaktua murrizteko.

Testuinguru horretan, **Tekniker** euskal zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kideak, **European Coatings Show 2025** foro europarrera eramango ditu gehigarrietan, estalduretan, erretxinetan, pinturetan, tintetan eta horien karakterizazioan lortutako azken aurrerapenak.

Martxoaren 25etik 27ra, Nurembergeko (Alemania) Erakusketa Zentroan dagoen 3A - 534 standak materialen erresistentzia, iraunkortasuna eta eraginkortasuna hobetzeko bere eskaintza teknologikoa erakutsiko du.

Hainbat funtzionalitate dituzten abangoardiako materialak

Teknikerrek, besteak beste, gehigarri-sorta zabala sintetizatzeko eta materialei mikrobioen aurkako, korrosioaren aurkako edo autokonpongarrak diren funtzionalitateak emateko gaitasuna du.

European Coatings Show 2025en, zentroak RELIANCE proiektuaren esparruan nanopartikula adimendunetan egiten ari den ikerketa-lanaren erakusle bat erakutsiko du. Proiektu hori zentro teknologikoak zuzentzen du eta Europar Batasuneko Horizonte Europa programak finantzatzen du. Ekimena 2026an amaituko da, eta bere erronka da ordezkotza irtenbide eraginkorrago, errentagarriago eta seguruago bat aurkitzea estaldurretan biozida tradizionalen aurrean, bakterioak, onddoak edo birusak ezabatzeko eraginkorra izan dadin.

Halaber, euskal zentro teknologikoak erretxina termoeogonkor birziklagarriak, birprozesagarriak eta konpongarrak garatzeko gaitasuna erakutsiko du, erretxina termoeogonkor tradizionalak ordeztzeko. Ildo horretan, Tekniker Europako EOLIAN proiektuaren parte da. Europar Batasunak ere finantzatzen du, eta aerosorgailuetarako pala birziklagarriak garatzea du helburu, iraunkortasun eta mantentze-erraztasun hobetuarekin. Teknikerrek ere laguntzen du proiektu horretan, tintak diseinatzeko eta inprimatzeko dituen gaitasunekin.

Proiektu horretako lanaren zati gisa, Europako foroan material konposatu bat aurkeztuko du, muturreko hotzaldietan izotza detektatzeko eta pala eolikoan mantentzea errazteko sentsoak biltzen dituenak.

Teknikerrek azokan erakutsiko duen eskaintza estaldurretan duen know how-arekin batuko da, pala eolikoetan izotza itsastea saihesteko propietate hobetuak dituen pintura-erakusle baten bidez eta sol-gel teknologian duen esperientziarekin.

Amaia Martinez Goitandia eta Miren Blanco Teknikerreko ikerlariak azaldu dutenez, "sol-gel teknologiak estaldurak nahi ditugun ezaugarrien arabera diseinatzeko aukera ematen digu, eta energia-kontsumo txikiagatik, prozesatze-tenperatura txikiagoengatik eta konposizio kimikoan homogeneotasun eta uniformetasun handiagoagatik nabarmentzen da, metodo tradizionalarekin alderatuta".

European Coatings Show funtsezko azoka da estalduren industriarako, Vincentz Network eta NürnbergMesse enpresek antolatua. Martxoaren 25etik 27ra, fabrikatzaileak, banatzaileak eta profesionalak bilduko ditu Alemanian; pinturen, bernizen, itsasgarrien, produktu kimikoen eta beste askoren azken joerak aztertzeko.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Unai Macias

unai@guk.eus / Tel. 690 212 067